

EUSKARA BATU-EUSKALKIEI BURUZKO EIBARKO IHARDUNALDIAK

Azken urteotako kultur ekintzei jarraiera emanez, aurten ere ihardunaldiak izan ditugu Eibarren, amaitu berri ditugun Gabon-jaietan zehar. Aurtengo honetan, oraindik oso gaurko dugun arazo bat plazaratu, aztertu eta sakondu nahi izan dute, hain zuzen *Euskara batuaren eta euskalkien* arteko gatazka.

Hasteko, lehen eta behin arazo hau ez dugula bat-batean eta ustirik gabe sortu den zerbait aitortu beharko dugu. Direla hainbat urte, *Karmel* aldizkari honetan ere idazlan bat baino gehiago argitaratu ziren honetaz, gogoeta batzu eskainiz. Nik, neuk ere idatzi nuen txosten luze bat arazo honen zenbait ikuspuntu aztertuz.

Eibarko ihardunaldiok aparteko berezitasunik izan badute, baturantzako bidean hainbeste urte egin ondoren, arazoa, sarkotasunez eta lasaitasunez, alde onak eta txarrak aztertuz, taldeka hausnartzeko aukera ematean izan dute. Aitortu egin behar, gainera, Eibarko Udaleko Kultur Batzordea ausarta izan dugula ihardunaldiotan halako gaiari bideak irekitzean. Eta egia esan, direla urte batzu (1978) Euskaltzaindiak Bergaran egin-zuen Biltzarrean ikusi ez zen lasaitasunez aztertu dira, oraingo honetan, batasunaren inguruan sorturiko arazo desberdinak.

Ihardunaldiotan eskuhartu ondoren, urteetan erderengandik hartu ditugun zatadak eta erasoak direla, edo eta jasan izan

dugun zapalkuntza kulturala bide dela, hainbatetan elkarrenganatu egin garela euskaldunok ikusi izan dut. Orain, behintzat, ondo baino hobeto dakigu zein den gure etsai amorratua: *Erdera*.

Hasieran bildurrik bagenuen ere, unerik beroenetan ere argi baino argiago ikusi izan dugu, burruka ez dela gure artekoa, denok elkarturik *erderen* aurka egitekoa baino. Eta honek pozez bete dit barrua! Eritzi ezberdinak izan dira, bai, baiña, halako adiskidetasun beroa nabaritu izan da giroan. Direla urte batzu inon ikusten ez zen bezalako!

Komunikabideetatik jaso ahal izan duzue, era ezberdinetako txostenak entzun eta ezdabaidatu ahal izan dira egun horietan. Bestalde, bertan batutakoan artean lanerako gogo handia izanik, gehienok (guztiok ez esatearren) oso pozik ibili garela aitortu behar.

Nik, neuk, hainbat argibide hartzeko lagungarri izan ditut bertan entzundako txostenak eta taldeka egindako hausnarketak. Hizlariak, gainera, idatzirik ekarri zituzten txostenok eta horrek materialea berehala esku artean izateko bidea eman zigun. Horrela, sakonago eta errezagoko jabetu ahal izan ginen gai ezberdinez.

Idazki hau irakurtzen ari zareten gehienok egun horietan Eibarrera hurbiltzeko aukerarik ez zenuenez izan, lerro haueetan, egun horietan han aztertutakoaren emaitzak eskeintzen saiatuko naiz. Labatik erre berri ateratzen den opil bero bigunaren antzera hartuko dituzuen itxaropenez edo.

Beraz, azterketa sakona hurrengo alerako utzirik, eta egunkarrietan egunero argitaratutako berriak kontutan hartuz, Eibarraren ihardunaldietan bildutakoan artean gehien azpimarratuak eta aipatuena izan ziren ideia nagusiak batzera joko dut gaurko honetan. Besterik beste, nik hurrengook ekarriko nituzke gogotara:

1a).- Gaur egun ezinbestekoa dugu hizkuntza «standar» edo

«batu» bat, gure hizkuntza gizarte modernoak eskatzen dituen beharrianetara egoki moldatu eta jartzeko, eta, era berean, inguruetan ditugun erdara batuek irentsiak ez izateko.

- 2a).- Hizkuntzak, bestalde, eguneroko bizitzan kokaturik izan behar du eta, lehenaren ezaugarri eta geroaren eragileenez, «euskalkietan» dauka bere gaur eguneko eustarria. Euskalkiek, beraz, tokia eduki behar dute hizkuntza batuaren aberasgarri eta oinarri diren heinean.
- 3a).- Arazo honen barru barruko muinean beste gatazka sakonago bat dagoela hartu behar dugu kontutan: inguruetako *erderetatik* jasan ohi dugun eragin zapaltzaile etengabea. Gure ahalegin nagusienak, bada, erderen aurka jokatzeko erabili behar ditugu eta ez geure arteko burruka antzuetan.
- 4a).- Zoritxarrez, gure herria (hain aurreratua teknika alorrean eta abarretan), herri «deskulturizatua» dugu. Hau da: euskaraz alfabetatu beharrean dugu bai hizkuntzaren egoera berrietara moldatzeko bai eta inguruko euskalki desberdinetako berezitasunen berri jakiteko. Hori dela eta, lan izugarria dugu egiteko. Orain arazo larritzat agertzen zaizkigun hainbat gertakizun berehala desagertuko lirateke gure Herria; euskaraz kulturizatuz.
- 5a).- Oraindik euskara batua guztiz burutu edo egin gabe dagoenez, atak zabal ditu euskalki desberdinen aberastasun ugariak jasotzeko, eta bereganatzeko. Eman dako urratsak ahiapuntutzat hartu eta, denon aportazioz, osotu eta bete egin behar dugu «baturantzako euskara», benetan onartua izan eta guztiontzat aberasbide eta euskerarentzat salbabide bihur dadin. Dena dela ontzat eman behar dira orain arte emandako urratsak, aukerabidezkoak izan badira ere. Ibili ere

ezin dugu aurrera-atzeraka etengabe ibili, bizitza modernoaren abiaduraren eraginez historiaren burdia galdu nahi ez badugu, behintzat.

6a).- Ikerketarik ere egin beharko genuke, oraindik falta zaizkigun hizkuntza alor desberdinak sakontasunez ezagutu eta gerorako abiabide egokiagoak lortzeko. Eta, baita ere, hala behar denean, egindako errakuntzak edo hutsegiteak zuzendu. Hizkuntza, ez dugu honen edo horren ondare pertsonala, herri osoarena baino. Euskeraren iraupenak, bada, ahalegin handia eskatzen digu euskaldun «ezjakin» edo «gutxijakin» garenoi. Oraindik, badugu bazterretan zer aztertu eta non jorran egin.

7a).- Euskalki ezberdinetan hasiak eta heziak izan garenok, ama-hizkuntzatik jasota ditugun aberastasun guztiak edo euskalkiaren iturri garbjetatik edandako ur lerdina gaineratu behar diogu idatzien eta erabileraren bidez, jaio berri den euskara batuari, euskaldun guztiok elkartu eta denon ondare eta jantzi dotore izango den hizkuntz egokia izatea lortzeko.

8a).- Euskarak, bestalde, orain arte debekatuak izan dituen bizitzako alor desberdinetara hurreratu beharra duenez (bestela, ezinezkoa izango du bizirik irautea) ardurara handiz jokatu behar dugu, erderen morrontzan ez erortzeko, horretarako gure hizkuntzaren baliabide guztiak ondo erabiltzen ahaleginak eginez.

Hala ere, hizkuntza elkarren artean harremanak edukitzeko izanik, euskara erraz eta ulerkorra erabiltzen saiatu beharko genuke, horrela gure arteko ezberdintasunak eta hainbatetan gutxitu egingo lirateke eta Euskara jatorra baina erraza eta ulerkorra egin beharra dugu. Eguneroko eta bizitzako alor guztietan erabiltzeko gai izango den hizkuntza behar dugu. Hori dela eta, beste inguruetako hizkuntzek mendez mende eta astiro astiro egin duten ibilaldi luzea, guk urte gutxitan

egin behar, bat-batean gizarte modernora bultzatuak izan gera eta. Honek, guztiok arduraz eta arreta handiz aritzea eskatzen du, baina bizitzaren abiaduri jarraituz. Bestela, gureak egin du!

9a).- Euskeraren geroa edo bizitza ez da jakitun batzuren kontua, euskaldun guztion a bano. Euskarak bizirik iraun nahi baldin badu, denok ahalegindu beharko dugu. Honek, herritarrak iratzartu eta «kontzientziatu» beharra eskatzen du. Ezin dugu euskararen aurrean erdibiderik hartu; edo alde gaude eta erabili egiten dugu bizitzako une ta egoera guztietan, edo eta aurka gaude eta pixkanaka-pixkanaka baztertu egiten dugu gure bizitzan. Erdibideek erderara eramango gaituzte. Guztionek etxeko, sendiko, auzoko euskara «prestijiatu» beharra dakar, herritarrek euskara egiteari utzi ez diezaioten.

10a).- *Euskara batu-euskalkiak* deitutako auzi hau aztertzerakoan, gaiñera, ezin dugu sendimenduz edo setakerik jokatu, buruz eta sentzunez bano. Horretarako zein den helburu nagusia, euskeraren iraupena, inoiz ahaztu barik, biderik egokienak eta seguruenak hartzen saiatu beharko dugu. Zein den biderik egokiena? Euskalduntzera edo alfabetatzera arinago eta aha- legin gutxiagoz eramaten duen bidea!

11a).- Lexiko alorrean, batez ere, oinarrizko hiztegi bateratu baten premia gorria ikusi izan zen. Oso urrats handia izango litzateke, denok 3/4.000 hitzezko lexikoan, behintzat, akordio zabal batetara helduko bagina, elkarren artean harremanak ugaritzeko bide bihurtuko litzateke eta. Sarritan, gure arteko arazoak elkar gutxiegi ezagutzetik edo elkarrekin inoiz ez edo gutxitan harremanak edukitzetik sortzen dira.

12a).- Euskara batua; gipuzkera batuaz nahastu izan da zarritan. Hori dela eta, hainbatetan «gipuzkuerakera» edo ikusi izan da bazterretan. Horregatik dei bizia

egiten zaie «gipuzkera» jatorriko euskalki dutenei, euskara batua ikasten eta erabilten ahalegin handiagoa egin dezaten. Beste euskalkietakoek halako ahalegin itzela egin eta giputxek ia ezer ez egitea salatu zen eta aurrerantzean gehiago saiatzeko eskatu.

13a).- Euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanak aztertzerakoan, ezin dira bizitzako alor desberdinak nahastu. Egoki eta ezinbestekoa izango da, bai, pedagogiaz jokatzea, baina helburuak inoiz ahaztu barik. Gure etsai nagusia, betikoa *erdara* da (nahiz *gaztelera*, nahiz *frantsesa*) eta hizkuntzok orain arte heuren esku izan dituzten alor guztiak bereganatu behar ditu euskara batuak, hala nola administrazioa, komunikabide nagusiak, irakaskuntza (bereziki goi mailetakoa), etabar.

14a).- Etabar, etabar...

Azkenik, amaitzeko, euskaldunok geureak eta bost beharko ditugula inguruko erderen aurka egiteko eta indar eta ahalegin guztiak hori lortzen egin behar ditugula gogoratu behar. Eta horretarako euskara erabili egin behar dugu hitzez eta idatziz. Osterantzerakoak gauerdiko ahuntzaren estul hutsak lirateke!

Oharra.- Aipatutako Eibarko ihardunaldi horietan, oso mintzaldi jakingarriak entzuteko eta ezdabaidatzeko aukera izan genuen. Bertan emandako hitzaldi guzti horiei hemen tokia egiterik ez badugu ere, interesgarrien batzu eskainiko dizkizuet (oso-osorik eskaintzea ezinezkoa egiten bazait ere, luzeegiak liratekelako) atsegingarri izango dituzuen ustetan.

Oraingo honetan, gaur egun Euskal Literatura alorrean geroago eta ezagunagoa den J. L. DAVANT ziberotar olerkari-kazetariaren mintzaldi-atal jakingarriena jaso dut. Izan zan bekizue gogoko!

Patxi Urbarren